

Donostian, Diputazioan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Villasanté, Irigaray, Mitxelena, Arrue, Lojendio euskaltzaiñak. Anai Berriotxoá, Alvarez Empanza, Arruza, San Martín, Labayen, eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiri irakurri da eta ontzat artu.

Bilboko Ayuntamentuko buruzagi batek Euskaltzainburuari bialdu deutsan agurra irakurri da. Agurragaz batera Bizkaiko bertsolarien azken-txapelketa nagusia Bilboko zezen-plazan egiteko ipiñi dituezan prezioak bialtzen ditu, egin jakon bisita batean berba egin zan legez. Txapelketa nagusi ori Iraillaren 11-an arratsaldeko lau ta erdietan izango da. Oso pozik entzun da guztia eta aintzat artu da.

*Jesusen Biotzaren Deya* atera barria bialdu deuskue Aita Jesuitak. Aspaldiko denporetan ateraten ebenaren jarraitzailea da aldizkari au. Eskerrak eta zorionak emon bekiez barriztau dabelako.

Arrue jaunak aurreko batzarrean Alvarez Empanza-k egin eban proposizioña zerbait aldatuta irakurri dau eta ontzat artu da ago batez.

Ignacio Irigaray jaunaren karta bat irakurri da. Diño oraintsu amaitu dala Gipuzkoan antolatu dauen teatrozko txapelketa bat. Eta amaituta diruaren bearra ikusten dabela. Gura leuke Euskaltzaindiaren izenean dirua eskatu Ofizial-Zentroi eta batez be "Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa"-ri. Amazortzi milla ta bosteun peseta bear ei dituez. Eskatu beio Euskaltzaindiak azkenengo oneri. Irigoyen jaun diruzaiñak diño kobrau barik dagoela oraindiño urtero emoten dabena eta bide batez ori be jaso bear dala. Diño, gaiñera, bearrezkoa dala urtero emoten daben besteai be eskatzea kaxan dagoen dirua oso gitxi dalako. Mitxelena jaunak diño diru-iturri barriak topau bear litzakezala, aal dala.

Arrue jaunak Donostian egingo dan euskal-asteaz berba egin dau. Ainbat gauza aipatu ditu euskeraz egingo direanak.

Lecumberrin eta Elizondon egin dira Nafarroako bertsolarien txapelketa bi, aurretik esanda egoanez. Baita Bizkaian be Mungian eta Markiñan.

Irunen egin gura dan Euskalzaleen Biltzarraz berba egin da. Urriaren 7-8 eta 9-a artu dira egun egokitatzat. Azkenengo egunean Ondarrabi-n egin leiteke Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketa nagusia. Bertan parte artu bear dabe mugaz gorakoak, nafarrak, gipuzkoarrak, eta bizkaitarrak. Txapeldunari Euskaltzaindiak, Euskalerrri osokoa danez, emon bear deutso makilla bat. Diruzko sariak lortu bear dira. Anai Berriotxoá-k diño Irungo Ayuntamentuak eleukeala Eibarkoaren atzean gelditu gura, berak dakianez. "Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa"-k emon eban igaz tari

bat Gipuzkoako bertsolarien txapelketarako, eta orduan adierazo eban jakin gura ebala ia Euskaltzaindiak aurrerantzean urtero egin gura zituen txapelketak, alan bazan berak be parte artu gura leukeala Bizkaiko Ahorro-kaxeak Bizkaian artzen dauen legez. Lortu bedi sarietarako bear dan dirua eta egin bedi Euskalerra osoko txapelketea. Arrue ta Lojendio jaunak izentau dira prestaera onein barri emoteko bisita bat egin deien Gobernadore jaunari, geroago baimena bear dan legez eskatuko bada be.

Urgazle barriak izentetako garaia datorren illean da eta izen mordo bat aipatu da bakotxaren merituak esanik. Datorren illean ikusi bedi zeatzago izentaziñoak egiteko.

Diploma batzuk egin bearra dago Bilbon aurten esamiñau direan umeai eta areik gertau dituezanai emoteko, esamiñen oiñarrietan imini zanez. Egin bediz.

Altube jaunaren karta bat irakurri da Alvarez Emparanza jaunarengandik artu dauen beste bateri erantzuten deitsana eta Euskaltzaindiko bere lagunai zuzendua.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.